



TXOSTENA, OGASUN ETA FINANTZA SAILEKO KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOARENA, EUSKALTERM – BANKU TERMINOLOGIKO PUBLIKOA EGUNERATU ETA ELIKATZEKOEUSKO JAURLARITZAKO KULTURA SAILAREN HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZAREN ETA HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN ARTEAN 2013-2017 EPEALDIRAKO HITZARMEN EGITASMOARI BURUZKOA.

Txosten hau egiteko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak duen eskumena honako arauotan oinarritzen da: 14/1994 Legea (1994ko abuztuaren 1eko EHAA, 145 zk.), Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia eta kontabilitatea garatzen dituen; eta 192/2013 Dekretua, apirilaren 9koa, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura eta zereginak finkatzen dituen (10. artikulua).

1. HITZARMENAREN EDUKIA

- 1) Xedea: EUSKALTERM – Terminologia Banku Publikoa eguneratzeko eta egin beharreko lanak kontratatzeko HPSren eta IVAPen arteko lankidetzaren bideratzea da Hitzarmen honen xedea.
- 2) Hitzarmenaren indarraldia EUSKALTERM eguneratzeko eta elikatzeko kontratuaren indarraldiarekin batera hasiko da, eta berau amaitzeaz batera bukatuko da. Halaber, Hitzarmen honen luzapena aipatutako kontratuari atxikitzen zaio.
- 3) Hitzarmena garatzeko erakunde bakoitzak honako diru ekarpena egingo du:

HPSk: 808.500,00 euro (%/70), BEZ barne

IVAPek: 346.500,00 euro (%·30), BEZ barne

| EUSKALTERM BANKU TERMINOLOGIKO PUBLIKOA EGUNERATU ETA ELIKATU (13/17) | | | | | | |
|---|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|---------------------|
| ORGANOA | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | GUZTIRA |
| HPS (% 70) | 79.800,00 | 218.750,00 | 218.750,00 | 145.600,00 | 145.600,00 | 808.500,00 |
| IVAP (% 30) | 34.200,00 | 93.750,00 | 93.750,00 | 62.400,00 | 62.400,00 | 346.500,00 |
| GUZTIRA | 114.000,00 | 312.500,00 | 312.500,00 | 208.000,00 | 208.000,00 | 1.155.000,00 |



Ordainketa 11 zatitan egingo da, beti ere lanak ontzat eman ondoren

- 4) Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren menpeko Euskara Sustatzeko Zuzendaritzari dagokio esparru hitzarmena kudeatzeko ardura.

2.- AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA (TRAMITAGUNEAN)

- Euskara Sustatzeko Zuzendariaren Memoria.
- Euskara Sustatzeko Zuzendariaren Memoria Teknikoa.
- Hezkuntza, Hizkuntza eta Kultura Saileko Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritzako arduradunaren txostena..
- Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzako legelariaren txosten juridikoa.
- Gobernu Kontseiluaren Akordio Proposamena eta esparru hitzarmenaren zirriborroa

3.- TXOSTENA

- 1) Gastu baimenak honako aurrekontu-aplikazioetan kokatzen dira:

HPS: 13.0.1.06.42.4200.1.238.99.47112.006/N

IVAP: 13.0.1.43.03.3300.1.238.99.47140.016/L.

- 2) Esparru hitzarmena, bost urtetarako izanik, jarduketa-plana izenpetzeke kontratuaren bidez egitea hitzartzen da, jakina, aurrekontu orokorretan eta helburu horretarako aurrekontu-kreditua onesten bada.



- 3) Diru-laguntza izendua emateko ezinbestekoa da Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 49.6 artikulura jotzea eta dioena betetzea.

4.- ONDORIOA

Esandakoa kontutan hartuta Akordio Proposamenaren aldeko txostena egiten da.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 18an